



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2019ko abenduaren 9koa, 2019-2020 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programako lehenengo eta bigarren berriztapenak emateko 2019ko azaroaren 27ko ebazpena aldatzen duena.

Hezkuntza sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez, (2019ko ekainaren 12ko 110 zbk. EHAA), 2019-2020 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitu zen.

2019ko azaroaren 27ko ebazpenaren bidez, aipatu laguntza horien lehenengo eta bigarren berriztapenak ebatzi ziren.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Ebazpeneko eranskinetan aurkitutako akatsak direla eta

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- II eranskina aldatzea.

Bigarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 9a



HEZKUNTZA SAILA  
Ikerketa Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Dirección de Investigación

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA